

Declaración institucional por la que el Parlamento de Navarra reconoce la trayectoria del Club Atlético Osasuna en sus 100 años de historia

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak aintzatetsi egiten baitu Club Atlético Osasunak bere historiako 100 urte hauetan egindako lana

En sesión celebrada el día 25 de noviembre de 2020, la Junta de Portavoces del Parlamento de Navarra aprobó la siguiente declaración:

“1. El Parlamento de Navarra reconoce la trayectoria del Club Atlético Osasuna en sus 100 años de historia.

2. El Parlamento de Navarra reconoce la importancia que tiene el Club Atlético Osasuna en la historia de nuestra Comunidad.

3. El Parlamento de Navarra expresa su reconocimiento y agradecimiento a todas las personas implicadas con Osasuna y que han contribuido al buen nombre del club, así como a todos los socios y socias que a lo largo de los 100 años lo han mantenido vivo.

4. El Parlamento de Navarra considera necesario seguir trabajando por la igualdad en el deporte apostando por el deporte femenino en el que el Club Atlético Osasuna lleva años trabajando junto con otros clubes navarros.

5. El Parlamento de Navarra valora la importancia de apostar por el deporte inclusivo, dirigido a personas con discapacidad, como Osasuna ha puesto en valor con su equipo Genuine.

6. La entrega de la medalla del Parlamento de Navarra al Club Atlético Osasuna es un reconocimiento a toda una trayectoria deportiva y a llevar los valores de nobleza, pluralidad y humildad que siempre han caracterizado a Navarra”.

Pamplona, 25 de noviembre de 2020

El Presidente: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2020ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak aintzatetsi egiten du Club Atlético Osasunak bere historiako 100 urte hauetan egindako lana.

2. Nafarroako Parlamentuak aitortu egiten du Club Atlético Osasunak gure erkidegoaren historian daukan garrantzia.

3. Nafarroako Parlamentuak bere aintzatespen eta esker ona adierazten dizkie Osasunarekin zerikusia izanik klubaren ospea eraikitzen lagundu duten pertsona guztiei, bai eta 100 urteko epe horretan klubaren biziari eutsi dioten bazkide guztiei ere.

4. Nafarroako Parlamentuak beharrezko deritza kiroleko berdintasunaren alde jarduten segitzeari, emakumezkoen kirolaren aldeko apustua eginez, zeinetan Club Atlético Osasunak urteak baitaramatza Nafarroako beste klub batzuekin lanean.

5. Nafarroako Parlamentuak estimatu egiten du desgaitasunak dituzten pertsonen zuzenduriko kirol inklusiboaren alde apustu egitearen garrantzia, Osasunak bere Genuine taldearekin balioan jarri duen bezala.

6. Nafarroako Parlamentuaren domina Club Atlético Osasunari emateak esan nahi du aitortu egiten dela haren kirol-ibilbide peto-petoa, bai eta Nafarroak betidanik bereizgarri izan dituen jatorria, pluraltasun eta apaltasunaren balioak jantzi-rik eramate hori ere”.

Iruñean, 2020ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Acuerdo de la Mesa de concesión de la Medalla del Parlamento de Navarra al Club Atlético Osasuna con motivo de la conmemoración del centenario de su creación

Mahaiko erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuaren domina ematen zaio Club Atlético Osasunari, bere mendeurrenaren ospakizunaren kariaz

En sesión celebrada el día 25 de noviembre de 2020, la Mesa del Parlamento de Navarra adoptó, entre otros, el siguiente Acuerdo:

El Club Atlético Osasuna celebra este año sus 100 años de historia. Un siglo en el que el club rojillo ha representado a nuestra Comunidad tanto en competiciones estatales como europeas. El Club Atlético Osasuna sigue manteniendo su carácter social.

La nobleza, la humildad, la entrega y el trabajo de cantera han marcado unas señas de identidad que definen a Osasuna y que también se reconocen a la propia sociedad navarra.

El Club también ha sabido adaptarse a los tiempos y en los últimos años ha apostado por el fútbol femenino, respondiendo a la demanda social y al esfuerzo que otros equipos deportivos más pequeños venían haciendo.

De la misma manera, la huella social del club ha sido muy importante participando en numerosas acciones sociales y colaborando con asociaciones y empresas. Es de destacar también su apuesta por el equipo Osasuna Genuine, formado por personas con discapacidad.

Son 100 años con sus baches, sus descensos y sus ascensos, sus alegrías y tristezas pero con unas señas de identidad que hoy se mantienen y que son reconocidas tanto en nuestra Comunidad como fuera de ella.

Por todo ello, el Parlamento de Navarra manifiesta su deseo de sumarse al centenario del Club Atlético Osasuna.

En consecuencia, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 37 del Reglamento del Parlamento de Navarra, SE ACUERDA:

1.º Conceder la Medalla del Parlamento de Navarra al Club Atlético Osasuna con motivo de la conmemoración del centenario de su creación, celebrando en el Salón de Plenos, el miércoles 2 de diciembre, a las 12:00 horas, el acto de entrega de la Medalla del Parlamento de Navarra al Club Atlético Osasuna.

2.º Ordenar la publicación del presente Acuerdo en el Boletín Oficial del Parlamento de Navarra.

Pamplona, 25 de noviembre de 2020

El Presidente: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Parlamentuko Mahaia, 2020ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Club Atlético Osasuna 100 urteko historia ospatzen ari da aurten. Mende horretan, talde gorritxoak gure erkidegoa ordezkatu du, bai estatuko lehiaketetan, bai Europakoetan. Club Atlético Osasunak bere izaera sozialari eusten dio.

Jatortasunak, apaltasunak, buru-belarri aritzeak eta harrobiko lanak markatu dituzte Osasuna definitzen duten eta Nafarroako gizarteari berari ere aitortzen zaizkion nortasun-ezaugarriak.

Klubak halaber jakin du garai berrietara egokitzeko, eta azken urteotan emakumezkoen futbolaren aldeko apustua egin du, gizarte-eskaerari eta beste kirol-talde txikiago batzuk jada egiten hasiak ziren ahaleginari erantzunez.

Orobat, klubaren lorratz soziala oso garrantzitsua izan da, ekintza sozial ugartan parte hartu eta elkarte nahiz enpresekin lankidetzan jardun baitu. Nabarmenezkoa da desgaitasunak dituzten pertsonen osaturiko Osasuna Genuine taldearen alde egin duen apustua ere.

Ehun urte dira, bihotzondokoekin, gorabeherekin, poz eta saminekin, baina gaur egun zutik dirauten nortasun-ezaugarriekin, hala gure erkidegoan nola kanpoan ere antzemanak direnak.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak aldarrikatzen du Club Atlético Osasunaren mendeurrenarekin bat egiteko nahia.

Ondorioz, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 37. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, honako hau ERABAKI DA:

1. Nafarroako Parlamentuaren Domina Club Atlético Osasunari ematea, haren sorkuntzaren mendeurrenaren oroitzaren kariaz. Nafarroako Parlamentuaren Domina Club Atlético Osasunari emateko ekitaldia Osoko Bilkuran egingen da abenduaren 2an, asteazkenarekin, 12:00etan.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias